



EUSKO JAURLARITZAREN COP25 ORDEZKARITZA #EKITEKO UNEA

ASTEARTEA, ABENDUAREN 3a ESKUALDEEN ETA GOBERNU AZPINAZIONALEN EGUNA.

EKINTZA AZPINAZIONALA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN. ESPAINIA PABILOIA. ZONA URDINA. Orduategia: 12:00-13:30.

COP25en Laguntza Unitateak eskatuta, Euskadik ekitaldia antolatzen lagundu du.

Elena Moreno sailburuordeak parte hartuko du eta topaketa moderatuko du, beste erkidegoekin batera: Balearrak, Valentzia, Madril, Galizia eta Katalunia. Helburua da erkidegoen ekintza klimatikoa, politika publikoak, erronkak eta aukerak balioztatzea.

ERKIDEGOIA #KLIMAREN ALDE. ESPAINIA PABILOIA. ZONA URDINA. Orduategia: 14:00-15:00.

Eusko Jaurlaritzak, Elena Moreno sailburuordearen eta bertan dagoen Ordezkaritzaren bidez, parte hartuko du, ETEen mobilizazio-ekimena balioztatuz; ekimena ACLIMA Ingurumen Klusterrarekin lankidetzan egiten ari da.

GAZTERIA ETA BIOSFERA-ERRESERBETAKO KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA.

GOIZEKO EKITALDIA: CASTELLANA BERDEA. ERAKUSKETA ABERTISEN EGOITZAN, CASTELLANA 39. Orduategia: 10:00-13:30.

Hizlarietako aurkezpenak eta lanak gazteen eta Man and Biosphere programaren kudeaketa-organoen artean (tokiko, nazioko eta nazioarteko mailak). Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2 bekadunek parte hartuko dute

ARRATSALDEKO EKITALDIA: BIOSFERA-ERRESERBETAKO KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA GAZTERIAREN PARTE-HARTZEAREKIN. Orduategia: 17:00-17:45.

Biosfera-erreserbetako klima-aldaketaren aurkako borroka-proiektuen arrakastakasuen erakusketak. Urdaibai Biosfera Erreserbaren 2 bekadunek parte hartuko dute



ASTEAZKENA, ABENDUAREN 4a EKITALDIA EUSKADIN

“URBAN KLIMA 2050” PROIEKTUAREN AURKEZPENA. EUSKALDUNA JAUREGIA. Hall Barria. Ordutegia: 10:00-11:30.

Klima-aldaketaren aurkako “Klima 2050” Euskal Estrategia hiriaren esparruan garatzeko URBAN KLIMA2050 proiektua Europar Batasunak onetsi du, klima-aldaketa arintzeko eta/edo klima-aldaketari egokitzeko proiektu integratuen arearen barruan. Proiektuaren lidergoa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak du, eta berarekin batera EAeko hogeitau entitate publiko nahiz pribatuk lan egiten dute.

Ekitaldi honetan, entitate horiek EAEn proiektu honen esparruan proiektuak iraungo duen sei urteetan zehar garatuko dituzten ekintzen aurkezpena egingo da. Iñaki Arriola sailburuak egingo du aurkezpena.

OSTIRALA, ABENDUAREN 6a

LOCAL ADAPTATION TO CLIMATE CHANGE IN MOUNTAIN MUNICIPALITIES: PRINCIPLES AND PRACTICES FROM THE TERRITORIES. ITALIA PABILOIA. Ordutegia: 16:00-20:00.

Eztabaidan parte hartuko dute Alpeetako, Karpatoetako, Apeninoetako eta Pirinioetako ordezkariak.

- Aitor Zuluetak, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendariak, parte hartuko du “The mitigation and adaptation of climate change in the mountains towards 2050 targets” panelean, Pirinioetako lan-erkidegoaren ordezkari gisa.
- Elena Morenok, bestalde, ekitaldia ixteko eztabaida politikoan parte hartuko du, Lombardiako Ingurumen Ministroarekin batera.

LARUNBATA, ABENDUAREN 7a

UNDER2 COALITION GENERAL ASSEMBLY. CAIXAFORUM AUDITORIUMA. ORDUTEGIA: 8:00-14:30.

Parisko Akordioarekin bat datorren ekintza klimatiko asmo handikoarekin konpromisoa hartutako estatu- eta eskualde-gobernuen erkidego globala da Under2 Koalizioa.

Koalizioak 220 gobernu baino gehiago biltzen ditu; gobernu horiek 1.300 pertsona baino gehiago ordezkatzeko dituzte, eta munduko ekonomiaren % 43a. Gobernu horien artean daude Under2 akordio-memorandumaren sinatzaileak, beste babesle nazionalekin eta jarraitzaileekin batera. 112 estatuk eta eskualde indibidualek sinatu dute MOU Under2 akordioa, eta gaur egun Under2 koalizioaren kide aktiboak dira.



Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute temperatura globalaren igoerak 2 °C-ren azpitik mantentzeko eta 1,5 °C-ra iristen ahalegintzeko. Koalizioaren hamar estatuk eta eskualdek konpromisoa hartu dute 2050erako edo lehenago zero isuri garbi lortzeko; haietako bat Euskadi da.

Euskadik Steering Committee Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du; batzordea 8:30etik 9:30era bitartean bilduko da, eta gero Batzar Orokorra egingo da.

Ingurumen Sailburuak eta Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendariak parte hartuko dute bai Zuzendaritza Batzordean eta bai Batzar Orokorrean.

IGANDEA, ABENDUAREN 8a

REGIONS4 SUSTAINABLE DEVELOPMENT SAREAREN EZOHIKO BATZAR OROKORRA. Garapen jasangarriaren aldeko Eskualdeen Nazioarteko Sarea. Novotel hotela, IFEMAREN ondoan. Ordutegia: 9:00-13:30.

NBE, Europar Batasuna, eztabaida globalak eta antzeko nazioarteko organismoen aurrean diharduen eskualdeetako gobernuen nazioarteko sarea da (estatuak, eskualdeak eta probintziak), klima-alaketaren, biodibertsitatearen eta garapen jasangarriaren eremuetan. 2002an ezarri zen Regions4, Johannesburgoko Mundu Gailurrean, Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualdeetako Gobernuen Sare gisa (nrg4SD). 2019an, berriz, Regions4 bihurtu zen, eta gaur egun 4 kontinenteetako 20 herrialdeetako 42 eskualdeetako gobernuak ordezkatzeko ditu.

2019ko Ohiko Batzar Orokorra Bilbon egin zen nazioarteko “Change the Change” konferentziaren esparruan, eta EAEk hartu zituen bere gain sarearen iparraldeko lehendakaritza eta Idazkaritza Orokorra. Era berean, Plan Estrategiko berria garatu da, Ezohiko Batzar honetan eztabaidatu beharrekoa.

REGIONAL LEADERSHIP IN THE CLIMATE EMERGENCY. NATURE BASED SOLUTIONS FOR ADAPTATION AND THE WATER CHALLENGE. Novotel hotela. Ordutegia: 15:30-17:30.

Ekitaldiak 2 saio izango ditu: lehenengoa Egokitzapenerako Naturan oinarritutako Konponbideei buruzkoa izango da, eta Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendariak moderatuko du. Bigarrena Uraren erronkari buruzkoa izango da, eta Ernesto Martínez de Cabredo jaunak parte hartuko du, URA Uraren Euskal Agentziaren Zuzendari Nagusiak.



ASTELEHENA, ABENDUAREN 9a FINANTZAKETA KLIMATIKOA

EKINTZA KLIMATIKOAREN FINANTZAKETA. ESKUALDEEN ETA SEKTORE PRIBATUAREN ERANTZUKIZUNA. Elkarrizketa Gunea. Zona berdea. Ordutegia: 10:00-14:00.

Maila handiko ekitaldia, EAEk +25 Agenda Ofizial Berdearen barruan antolatua. Ekitaldia irekia izango da; Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburu Iñaki Arriolak egingo du ongietorri instituzionala, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren ordezkari batekin batera.

Bi saio izango ditu. Lehenengoa finantzaketa klimatikoaren eskualde-ikuspegitik, eta bigarrena, berriz, sektore pribatuaren ikuspegitik.

- **KEYNOTE 1. FINANTZAKETA KLIMATIKOAREN ESKUALDE-IKUSPEGIA ALEMANIAN.** Franz Untersteller. Minister of the Environment, Climate Protection and the Energy Sector. Government of Baden-Württemberg.
- **Klima-aldaketaren aurkako borrokaren finantzaketa. I. MAHAIA.**
 - Yvon Slingenberg. Europar Batasunaren Ekintza Klimatikoaren Zuzendaritza Nagusiko zuzendaria.
 - Juan Pedro Yllanes. Balearretako Gobernuako Trantsizio Energetikoaren eta Sektore produktiboen lehendakariordea eta sailburua
 - Mireia Mollá. Generalitat Valenciana-ko Nekazaritza, Larrialdi Klimatiko eta Trantsizio Ekologikoko sailburua
 - Juan Espadas. "FMP. Federación Española de Municipios y Provincias" federazioaren Klimaren aldeko Hirien Sarearen lehendakaria
- **KEYNOTE 2. ENERGIA- ETA KLIMA-PLANEN INPAKTU EKONOMIKOA** Mikel González-Eguino. Senior researcher at BC3 (Basque Centre for Climate Change) and associated professor at the University of the Basque Country.
- **Klima-aldaketaren aurkako borrokaren finantzaketa. II. MAHAIA.**
 - Birthe Bruhn-Léon, Inbertsioen Europako Bankua. OPS-Iberriko zuzendaria.
 - Divya Mankikar. Jasangarritasun-inbertsioen kudeatzailea. CalPERS. Kalifornia.
 - Jose Manuel Marqués. Espainiako Bankuaren finantza-berrikuntzako burua
 - Francisco Javier Garayoa. SpainSIF-en zuzendari nagusia. Inbertsio Sozial eta Arduraturako Espainiako Foroa.
 - Gonzalo Saenz de Miera. Iberdrolako Energia Politikaren zuzendaria. Energia Ekonomiarako Espainiako Elkarteko lehendakaria.
 - Javier Santos Beorlegui. Corporate Debt Capital Markets Iberiaren arduraduna eta Finantzaketa Jasangarriaren arduraduna Natixis Iberia-n

**CLIMATE CHANGE ADAPTACIÓN AND RISK MANAGEMENT IN A MULTI-LEVEL GOVERNANCE CONTEXT. Zona urdina. 5. aretoa. Ordutegia: 15:00-16:30.**

Antolatzaileak: Regions4, Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualdeen Sarea, BC3 Klima Aldaketa Ikerketa Zentroa eta MCII Munich Climate Insurance Initiative. Parte-hartzaileak: Elena Moreno, Ingurumen saileko sailburuordea; Elisa Sainz de Murieta, BC3ko ikertzailea; eta Iñaki Susaeta, Regions4 sarearen idazkari nagusia eta Ihebeko lantalde teknikoko kidea.

ALDEBIKO BILERA ETA QUEBECEKO ORDEZKARITZAREN HARRERA**ASTEARTEA, ABENDUAREN 10a**

KLIMAREN ALDEKO BILTZARRA. Antolatzailea: #PorElClima plataforma. Abenduaren 10eko parte-hartzea. EAEk antolatzen lagunduko du.

TOPAKETA NATURAREN KONTSERBAZIORAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEAREN (IUCN) LEHENDAKARI Zhang Xinsheng-ekin eta IUCNko Zuzendari Nagusi Grethel Aguilar-ekin.

Topaketa 17:00etan izango da, eta Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaria, Aitor Zulueta, bertan egongo da.

BERRIKUNTZA JASANGARRIARI BURUZKO FOROA

Ordezkaritza bertan egongo da

ASTEAZKENA, ABENDUAREN 11

LEAVING NO ONE BEHIND IN THE TRANSITION TO CLIMATE NEUTRALITY Zona urdina. Helsinki Room. Europar Batasuna pabiloia. 18:30-20:00

Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Kontseiluak antolatzen du ekitaldia; trantsizio bidezkoa egiteko beharraz jardungo da. Aitor Zulueta, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendariak, parte hartuko du. EAEko Ordezkaritzaren kideak bertan egongo dira.

ANBIZIO KLIMATIKORAKO ALIANTZA COP25en. CHAMPIONS EKITALDIA COP25en.

Xehetasunen zain

BERRIKUNTZA JASANGARRIARI BURUZKO FOROA

Ordezkaritza bertan egongo da



ASTEAN ZEHAR PROGRAMATUTAKO ALDEBIKO TOPAKETAK

- Baden-Württemberg. Franz Untersteller-ek zuzendutako ordezkariak. Minister of the Environment, Climate Protection and the Energy Sector
- Santa Fé. Argentina. Energia Zuzendari Nagusia.
- Amapá. Brasilgo Amazoniaren Erreserba
- British Columbia
- Flandes
- Noord Holland
- Quebec